

## 2.MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Eskaintako proiektu hau, **merkatu nitxo** bati zuzenduta egongo da. Esan beharra dago gure merkatu nitxoa nahiko zabala dela, ezintasuna edo behar berezia duten pertsonen gure eskaintzaz gozatzeko aukera ematen baitiogu. Gehienbat, kirolaz interesatua dauden pertsonen zuzenduta dago, gure enpresa kirolean oinarritzen baita.

Eskaintza urte osoan zehar eskaintzen dela ere, alde positibotzat jo daiteke. Ez bakarrik eskolako taldeei eskainta baizik eta udaleku, banaka, taldeka, bikoteka etor daitekeen edozein pertsonari zuzenduta baitago.